**KULTURA SAILA**

**4398**

AGINDUA, 2008ko uztailaren 1ekoa, Kultura sailburuarena, Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza eta Musikaren kultur arloetan jaialdiak, zikloak, lehiaketak eta sariketak antolatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta 2008rako deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortzeko, kentzeko eta aldatzeko, eta horien zereginak eta jarduteko alorrak zehazteko ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren arabera (ekainaren 28ko EHAA, 122. zk.), Kultura Sailaren eskumenekoak dira arte eta kultura jarduerei dagozkien zereginak eta horien zabalkundeari dagozkionak. Aipatutako zereginak, Kultura Sailaren barruan, bere egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren bitartez (martxoaren 1eko EHAA, 42. zk.), Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitu zaizkio.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak egoki deritzo Euskal Autonomia Erkidegoan jaialdiak, zikloak, lehiaketak, sariketak eta antzeko jarduerak bultzatzea ahalbidetuko duen bidea ezartzeari, jarduketa hori bere eskumenen esparruan sar daitekeen heinean, Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza eta Musikaren kultur arloetan honelako jarduerak antolatzeko dirulaguntzak emanez. Neurri horren bitartez, kultur produkzioa bere adierazpide desberdinetan gozatzeko aukera gizarteari zabaltzeko formula lortu nahi da.

Hori dela eta,

XEDATU DUT:

***1. artikulua.–*** Xedea.

1.– Agindu honen xedea, Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza eta Musikaren kultur arloetan espezializazio edo berezitasun maila handiaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko kultur panoramarako interes berezia duten jaialdiak, zikloak, lehiaketak, sariketak eta antzeko jarduerak 2008ko ekitaldian zehar antolatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzean datza.

2.– Dirulaguntza jaso ahal izateko, jarduerek ondoko eskakizunak bete beharko dituzte:

a) Erakunde antolatzailearen jatorria edozein dela, programak edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan garatu beharko dira, 2008ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

b) Dirulaguntza jasotzeko aurkezten den programak edo jarduerak ekonomikoki bideragarria izan beharko du, eta finantziazioari agindu honen 7. artikuluak ezartzen dizkion mugak errespetatuko dituen aurrekontu

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**4398**

ORDEN de 1 de julio de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones para la organización de festivales, ciclos, concursos y certámenes de las áreas culturales de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música, y se efectúa la convocatoria para el año 2008.

De conformidad con el Decreto 8/2005, de 27 de junio, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos (BOPV n.º 122, de 28 de junio), competen al Departamento de Cultura las funciones relativas a actividades artísticas y culturales, así como su difusión. Dichas funciones se atribuyen en el seno del Departamento de Cultura, a través del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece su estructura orgánica (BOPV n.º 42, de 1 de marzo), a la Dirección de Promoción de la Cultura.

Esta Dirección estima oportuno proceder a arbitrar un cauce que permita apoyar la realización de festivales, ciclos, concursos y certámenes que se desarrollen en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, actuación encuadrable en su ámbito de competencia, mediante la concesión de subvenciones para la organización de este tipo de actividades en las áreas culturales de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música. Con tal medida se pretende obtener una fórmula que facilite el acceso de la sociedad al disfrute de la producción cultural en sus distintas manifestaciones.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo 1.–*** Objeto.

1.– El objeto de la presente Orden es la regulación de las condiciones de concesión de subvenciones durante el ejercicio 2008 a la organización de Festivales, Ciclos, Concursos y Certámenes en las áreas culturales de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música que presenten un elevado grado de especialización o singularidad y sean de especial interés para el panorama cultural de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– Las actividades subvencionables deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Independientemente del origen de la entidad organizadora, los programas o actividades se desarrollarán en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2008.

b) El programa o actividad presentado para ser subvencionado será económicamente viable, acreditando dicha viabilidad por medio de la presentación de un presupuesto equilibrado, es decir, en el que las cantida-

doitua, gastuak eta diru-sarrerak berdintzen dituena alegia, aurkeztu beharko da bideragarritasun hori egiaztatzeko.

3.– Kanpo geratuko dira:

a) Kultura programazio orokorrak; honen arabera, eskaera egiten duten erakundeek beren programazioetatik jaialdi, ziklo, lehiaketa edo sariketa zehatzak aukeratu beharko dituzte dirulaguntzetara aurkezteko.

b) Dokumentazioaren arabera, Balioespen Batzordeak batez ere toki edo eskualde mailako oihartzun edo zabalkundea dutela ondorioztatzen dituen jarduerak.

c) Dokumentazioaren arabera, Balioespen Batzordeak eduki batez ere kulturalik ez dutela ondorioztatzen dituen jarduerak, Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza edo Musikaren kultur arloetako batekin zerikusirik duen edukia alegia.

***2. artikulua.***– Hautapena eta baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honen kargura emango diren dirulaguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira; dirulaguntza jasotzeko ezartzen den gehienezko muga errespetatuz, hautaturiko proiektuen dimentsioari dagokionez, beren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzeko moduko onuradun kopurua besterik ez da hautatuko, ezartzen diren irizpideen arabera.

2.– Agindu honen babesean emango diren dirulaguntzak finantzatzeko kredituaren zenbateko orokorra bederatziehun eta hirurogeita bederatzi mila eta zazpiehun (969.700) eurokoa izango da; halere, zenbateko hori handitu egin ahal izango da lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera.

***3. artikulua.***– Entitate onuradunak.

1.– Agindu honen kargurako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte aginduan bertan adierazten diren kultur arloetan jarduerak edo programak egiten dituzten pertsona juridiko, publiko zein pribatu, guztiek.

2.– Onuradunei laguntzak ematea eta, hala dagokionean, horien ordainketa, baldintzaturik geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko espedientea hasi, eta oraindik tramiteak amaitu gabe baldin badaude, prozedura hori burutu arte.

3.– Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu bide administratibo edo penaletik zigortuta egoteagatik dirulaguntza edo laguntza publikoak jaso ezin dituzten entitateak, edo laguntzak jasotzeko ahalmena kentzen dien legezko debekua dutenak, barnean sexuaren ziozko bereizkeria egin izanagatik jaso daitezkeenak sartzen direla, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean araututakoaren bat etorriz, betiere kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean.

***4. artikulua.***– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

des de gastos e ingresos sean equivalentes, y que respete los límites a la financiación establecidos en el artículo 7 de la presente Orden.

3.– Quedarán excluidas:

a) Las programaciones culturales generales; en este sentido, las entidades solicitantes deberán seleccionar de sus programaciones festivales, ciclos, concursos o certámenes concretos para presentarlos a subvención.

b) Las actividades de cuya documentación se desprenda, a juicio de la Comisión de Valoración, que tienen una repercusión predominantemente local o comarcal.

c) Las actividades de cuya documentación se desprenda, a juicio de la Comisión de Valoración, que no tienen un contenido predominantemente cultural, relacionado con alguna de las áreas de Audiovisuales, Teatro, Danza o Música.

***Artículo 2.***– Selección y dotación económica.

1.– Las subvenciones que se concedan con arreglo a la presente Orden lo serán mediante el procedimiento de concurso, de manera que, respetándose el límite máximo de subvención que se establece, tan sólo se seleccione, conforme a los criterios establecidos, un número de beneficiarios que garantice la calidad y viabilidad de las actividades, teniendo en cuenta su dimensión.

2.– El importe global del crédito destinado a financiar las subvenciones que se concedan al amparo de esta Orden es de novecientos sesenta y nueve mil setecientos (969.700) euros y podrá verse incrementado en los términos recogidos en la primera disposición adicional.

***Artículo 3.***– Entidades beneficiarias.

1.– Podrán solicitar subvenciones con arreglo a esta Orden cuantas personas jurídicas, públicas o privadas, realicen actividades o programas en las áreas culturales a las que se refiere dicha Orden.

2.– La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones a los beneficiarios de éstas, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento sancionador o de reintegro que, habiéndose iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– No podrán concurrir a la presente convocatoria las entidades sancionadas administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o incursas en prohibición legal que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, durante el periodo que establezca dicha sanción.

***Artículo 4.***– Solicitudes y documentación a presentar.

Agindu honetan aurreikusten diren laguntzak jasotzeko eskabideak I eranskinean agertzen den idazki-ereduan formalizatuko dira, derrigorrez bertan ezartzen diren agiriak erantsita. Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordeari zuzenduko zaizkio, eta zuzenean aurkeztuko dira edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako beste edozein bidetatik.

***5. artikulua.–*** Eskabideak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, agindu hau EHAAn argitara ematen den egunaren biharamunetik hasita.

2.– Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak eskabideak eta gainontzeko agiriak aztertu ondoren, akatsen bat aurkituko balitz edo dokumentazioa osorik ez balego, eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio eta jakinarazpen hori jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita, hamar laneguneko epea emango zaio okerra zuzentzeko. Epe hori amaitu eta adierazitako zuzenketa egin ez bada, eskabideari uko egin zaiola ulertuko da, eta bidezkoa izango da eskabide hori besterik gabe artxibatzea, hori esaten duen ebazpena jakinarazi ondoren.

3.– Agindu honetan arautzen den jardunbidearen iraupena gehienez sei hilabetekoa izango da, agindu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera.

***6. artikulua.–*** Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio agindu honetan arautzen eta deitzen diren laguntzen kudeaketa-zereginak betetzea.

***7. artikulua.–*** Dirulaguntzen muga eta bateragarritasuna.

1.– Agindu honetara biltzen diren programek edo jarduerek jasoko duten dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa ez da aurkeztutako guztizko aurrekontuaren % 50 baino gehiagokoa izango.

2.– Agindu honetan aintzatesten diren dirulaguntzak, beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek xede bera betetzeko eman lezaketen beste edozein dirulaguntzarekin batera jaso daitezke, baina ezin gertatuko da, ezein kasutan ere, jardueraren gain-finantziaziorik, eta kasu horretan, bidezkoa izango da dirulaguntza jardueraren guztizko kostuaren mugara egokitu arte murriztea.

***8. artikulua.–*** Balioespen, hautapen eta kuantifikatze irizpideak.

1.– Aurkezten diren proiektuak balioesteko, eta ondorioz hautatzeko ala ez, eta dirulaguntzen kopuruak zehazteko, ondoko irizpideak erabiliko dira:

a) Jardueraren interes kulturala eta kalitate artistikoa (lor daitekeen puntuazio osoaren % 45 gehienez). Ondorio honetarako, ondoko alderdiak hartuko dira kontuan nagusiki proiektu bakoitzean:

Las solicitudes para acogerse a las subvenciones previstas en la presente Orden se formalizarán en el modelo de impreso que figura como anexo I, adjuntando necesariamente la documentación establecida en el mismo. Se dirigirán al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes y se presentarán directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 5.–*** Plazo de presentación de solicitudes y subsanación de errores en las mismas.

1.– El plazo de presentación de solicitudes será de dos meses a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden en el BOPV.

2.– En el supuesto de que, analizadas por la Dirección de Promoción de la Cultura la solicitud y la documentación, se observase la existencia de defectos o que la documentación fuera incompleta, tal circunstancia se pondrá en conocimiento del solicitante, otorgándole para su subsanación un plazo de diez días hábiles a contar desde el siguiente a la recepción de la notificación correspondiente, transcurrido el cual sin que haya procedido a la referida subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, archivando la solicitud sin más trámite y dictando al efecto Resolución que le será notificada a continuación.

3.– El plazo máximo de duración del procedimiento regulado en esta Orden será de seis meses a contar desde la fecha en que surta efectos.

***Artículo 6.–*** Órgano de gestión de las subvenciones.

Corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura la realización de las tareas de gestión de las subvenciones reguladas y convocadas en la presente Orden.

***Artículo 7.–*** Límite y compatibilidad de las subvenciones.

1.– El total de la cantidad con la que se subvencionen los programas o actividades al amparo de la presente Orden no superará el 50% del total del presupuesto presentado.

2.– Las subvenciones concedidas al amparo de la presente Orden serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos públicos o privados para el mismo objeto, sin que pueda existir sobrefinanciación en ningún caso, procediendo en tal supuesto la reducción de la subvención concedida hasta el límite del coste total de la actividad subvencionada.

***Artículo 8.–*** Criterios de valoración, selección y cuantificación.

1.– Para valorar los proyectos presentados, y como consecuencia seleccionarlos o no, y cuantificar las ayudas, se utilizarán los siguientes criterios:

a) Elementos de interés cultural y calidad artística de la actividad (hasta un 45% de la puntuación máxima obtenible). Se considerarán principalmente los siguientes aspectos en cada proyecto:

a.1.– Jardueraren interes kulturala:

– Jardueraren garrantzi kulturala.

– Jarduera zenbat ediziotan garatu izan den eta gizartean zein mailatan erroturik dagoen.

– Jardueraren esparru jasotzailean antzeko beste jarduerarik ez egotea.

– Aurkezten den jarduerak gaiaren aldetik dakarren berrikuntza.

– Publiko berriak sortzeari begira, haur eta gazteak batez ere, proiektua garatzeko modua.

– Emakumeen ekarpena eta partaidetza profesionala, eta oro har, generoaren ikuspegia integratuta izatea.

a.2.– Jardueraren kalitate artistikoa:

– Esku hartzen duten talde artistiko eta teknikoak.

– Antzezteko edo proiektatzeko lanak.

– Lan horien egokitzapena eta proiektuaren garapena.

– Proiektuaren taularatze-proposamena.

b) Emankizuna, aurkeztutako aurrekontu orokorraren arabera, zein mailatan autofinantzatzen den, edo finantzazio pribatua duen (lor daitekeen puntuazio osoaren % 30 gehienez). Positiboki baloratuko dira:

– Kultura Sailak aintzatesten duen finantzatze proposamenak eskatutako guztiari erantzungo ez balio, sustatu nahi den jarduera erabat garatzeko aurkezten diren alternatibak.

– Aurkeztu denaren aurreko edizioan beste erakunde publiko batzuek egindako ekarpena.

c) Euskararen erabilera (lor daitekeen puntuazio osoaren % 15 gehienez).

d) Jarduera zein lurralde esparrutara zuzendurik dagoen, emankizunaren kanporako oihartzuna eta hedapena (lor daitekeen puntuazio osoaren % 10 gehienez). Lurralde-oreka lortzeko jarduerak egiten duen ekarpena baloratuko da.

2.– Aurreko puntuan ezarri diren irizpideak aplikaturik, gutxienez puntuazio osoaren % 50a lortzen duten proiektuak soilik hauta litezke.

3.– Hautatu diren proiektuen artean bakoitzari dagokion laguntzaren kopurua ezartzeko, banaketa sistema proportzionala ezarriko da. Deialdiaren kredituaren zenbateko orokorra, 1. puntuan agertzen diren irizpideei jarraiki, balorazio fasean lortzen duten puntuazioarekiko era proportzionalean banatuko da, hau Kultura Sailari eskatutako kopuruari aplikatuz, 2.1 artikuluan ezartzen den proiektuen kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatu beharra kontuan harturik, eta betiere 7. artikuluan ezartzen diren gehienezko mugak errespetatuz.

a.1.– Elementos de interés cultural:

– La importancia cultural de la actividad.

– El número de ediciones que se han desarrollado de la actividad y el arraigo social de la misma.

– La inexistencia de actividades similares en el ámbito al que se dirige.

– La innovación temática que supone.

– La forma de desarrollar el proyecto de cara a la creación de nuevos públicos, especialmente el infantil y el juvenil.

– La aportación y la participación profesional de las mujeres, y en general, la integración de la perspectiva de género.

a.2.– Elementos de calidad artística:

– Los equipos artísticos y técnicos implicados.

– Las obras a ejecutar o proyectar.

– La adaptación de dichas obras y el desarrollo del proyecto.

– La propuesta de puesta en escena del proyecto.

b) Grado de autofinanciación, o de financiación privada, del evento respecto al presupuesto global presentado (hasta un 30% de la puntuación máxima obtenible). Se valorarán positivamente:

– Las alternativas de financiación presentadas en orden al completo desarrollo de la actividad para la que se solicita subvención, para el caso de que la propuesta de financiación que reconociese el Departamento de Cultura no atendiera el total de lo solicitado.

– La aportación de otras Instituciones públicas en la edición anterior a la solicitada.

c) Utilización del euskera (hasta un 15% de la puntuación máxima obtenible).

d) Ámbito territorial al que va dirigido, repercusión y difusión exterior del evento (hasta un 10% de la puntuación máxima obtenible). Se valorará la contribución que suponga la actividad al equilibrio territorial.

2.– Sólo podrán ser seleccionados aquellos proyectos que, en aplicación de los criterios establecidos en el punto anterior, obtengan al menos una puntuación del 50% del total posible.

3.– Para la cuantificación del importe de la ayuda que corresponda a cada uno de los proyectos seleccionados se aplicará un sistema de reparto proporcional, en virtud del cual el importe global del crédito de la convocatoria se distribuirá en proporción a la respectiva puntuación que, en aplicación de los criterios establecidos en el punto 1, hubieran obtenido en la fase de valoración, aplicada a la cantidad solicitada al Departamento de Cultura, teniendo en cuenta la necesidad de garantizar la calidad y viabilidad de las actividades, establecida en el artículo 2.1, y respetando en todo caso los límites máximos establecidos en el artículo 7.

***9. artikulua.–*** Eskabideen azterketa eta ebazpen-proposamena.

1.– Balioespen Batzorde bati egokituko zaio aurkezten diren eskabideak ebaluatzea, dagokion ebazpen-proposamena erabaki eta, loteslea izango ez den arren, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari igortzea.

2.– Ondokoak izango dira Balioespen Batzordekide-de:

– Batzordeburua: Kultura Sustatzeko zuzendaria.

– Batzordekideak: Kultura Saileko hiru teknikari, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak izendaturik.

– Idazkaria: Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak izendaturik ere, hitzez baina botorik gabe arituko dena.

Balioespen Batzorde honen osaera Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak EHAAn argitara emango duen ebazpenaren bidez jakinaraziko da. Edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan abstentzioari eta ezespenari buruz ezarritakoa beteko da.

3.– Balioespen Batzordeak, aurkeztu diren eskabideak behar bezala ebaluatu ahal izateko, beharrezkoa iritzten dionean, egoki irizten dituen argibideak azaltzeko eskatu ahal izango die eskabide egileei eta proiektuen arduradunekin horretarako elkarrizketak hitzartu ahal izango ditu, behar izanez gero.

4.– Ebazpen-proposamena dirulaguntza ematearen aldekoa denean, ondoko datu hauek barne hartu beharko ditu gutxienez:

a) Erakunde, enpresa edo elkarte onuraduna, dirulaguntza jasoko duen jarduera eta emandako laguntzaren zenbatekoa.

b) Dirulaguntza jasoko duen egitasmoa beteko dela ziurtatzeko agindu honetan araututa dauden bestelako eskakizunak.

5.– Balioespen Batzordeak, aurkeztu diren eskabideen kalitate faltaren edo agindu honetan aurreikusten den beste edozein eskakizun ez betetzearen ondorioz, proiekturik onartzen ez duen edo gehienezko diru-zuzkidura agortzen ez duen proposamena aurkeztu ahal izango du.

***10. artikulua.–*** Ebazpena.

1.– Balioespen Batzordeak igortzen dion ebazpen-proposamena ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak emango du aurkeztutako eskaerei buruzko ebazpena.

2.– Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpena, loteslea ez den ebazpen-proposamenarekin

***Artículo 9.–*** Análisis de las solicitudes y propuesta de Resolución.

1.– Corresponderá a una Comisión de Valoración la evaluación de las solicitudes presentadas, así como la adopción y elevación al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes de la propuesta de Resolución correspondiente, que no tendrá carácter vinculante.

2.– La Comisión de Valoración estará compuesta por los siguientes miembros:

– Presidente: el Director de Promoción de la Cultura.

– Vocales: tres personas técnicas del Departamento de Cultura, designadas por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

– Secretario/a: una persona técnica de la Dirección de Promoción de la Cultura, igualmente designada por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, que actuará con voz y sin voto.

La composición de dicha Comisión se hará pública en el BOPV mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes. Se respetará en todo caso lo dispuesto sobre abstención y recusación en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– La Comisión de Valoración, cuando lo estime necesario a fin de posibilitar la más correcta evaluación de las solicitudes presentadas, podrá requerir a los solicitantes cuantas aclaraciones entienda oportunas, pudiendo incluso concertar entrevistas con los responsables de las actividades a tales efectos.

4.– Cuando la propuesta de Resolución sea favorable a la concesión de subvención, la misma deberá contener al menos los siguientes datos:

a) Organismo, empresa o asociación beneficiaria, Actividad subvencionada y Cuantía de la subvención concedida.

b) Cualesquiera otras obligaciones que estén previstas en la presente Orden a efectos de garantizar la ejecución del proyecto subvencionado.

5.– La Comisión de Valoración podrá elevar propuesta en la que por falta de calidad o de cualquier otro requisito previsto en la presente Orden no se apruebe ningún proyecto o no se agote la dotación económica máxima contemplada.

***Artículo 10.–*** Resolución.

1.– Corresponderá al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista de la propuesta de Resolución elevada por la Comisión de Valoración, la Resolución de las solicitudes presentadas.

2.– La Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes apartándose de la propuesta de

bat ez datorrenean, erabaki hori hartzen duen organoak arrazoitu egin beharko du.

3.– Agindu honetan aurreikusten diren laguntzak esleitzen dituen ebazpenaren berri emanez eskatzaile izan direnei egin dakiekeen norbanako jakinarazpenaren kaltetan izan gabe, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da entitate onuradunen, lagundutako jardueren eta agindu honen babesean emandako dirulaguntzen kopuruen zerrenda osoa.

4.– Ebazpena baiezkoa denean, deialdi honetako 9.4. artikuluan adierazten diren zehaztapenez gain, ordaintzeko era eta epeak, justifikatzeko era, eta agindu arautzaile honetan egoteagatik nahiz orokorrean aplikatzekoa den araudian egoteagatik exijitzen diren baldintzak eta eskakizunak barne hartuko ditu.

5.– Ebazpena eman eta interesatuei jakinaraziko zaie, lau hilabeteko epean eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera, eta interesatuei Ebazpenik jakinarazi gabe epe hori amaitzen bada, eskabideak ez direla onartu ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena horrela izanda ere, agindu honetako 5. artikuluan akatsen zuzenketa dela-eta xedatutakoa aplikatzekoa denean, ebazpena emateko epea etenda geratuko da tramite horiek betetzeko behar den denboraz, jakinarazpena jasotzeko eta honi erantzuteko epearen arabera.

***11. artikulua.***– Betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradunek, edozein kasutan ere, betebehar hauek bete beharko dituzte:

1.– Dirulaguntza jasotako jarduera dela medio, diruz lagundu izana adieraziz igorritako ebazpena jasotzen dutenetik aurrera argitaratzen duten katalogo, programa, iragarpen-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinuzko guztian argi eta garbi ezarri beharko dute jarduerak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesa duela adierazten duen aipamena. Material hori euskaraz zabaldu beharko dute, gainontzeko hizkuntzen kaltetan izan gabe.

2.– Emandako dirulaguntza onartzea. Onuradunek espresuki eta idatziz onartzea izango dute. Bestelako kasuan, dirulaguntza eman zaiela jakinarazten zaien egunetik hamabost eguneko epean, onuradunek dirulaguntzari espresuki eta idatziz uko egiten ez badiote, dirulaguntza onartu dutela ulertuko da.

3.– Dirulaguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea, aldaketen onarpena dela-eta 6. atalean ezartzen dena aplikagarri gertatzen bazaio izan ezik.

4.– Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari, dirulaguntza jaso duten proiektuak behar bezala burutuko direla ziurtatu ahal izateko, honek egoki deritzon ikuskapen

Resolución, que no tiene carácter vinculante, exigirá la motivación de dicha decisión por parte del órgano resolutor.

3.– Sin perjuicio de la notificación individualizada de la Resolución de adjudicación de las subvenciones previstas en la presente Orden a quienes hayan solicitado las mismas, por Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación total de las Entidades beneficiarias, las Actividades subvencionadas y la Cuantía de las subvenciones concedidas al amparo de la presente Orden.

4.– Cuando la Resolución fuera positiva contendrá, además de las determinaciones señaladas en el artículo 9.4 de la presente Orden, los plazos y forma de pago, la forma de justificación y las condiciones y requisitos exigidos por esta Orden reguladora y por la normativa de general aplicación.

5.– La Resolución será dictada y notificada a los interesados en el plazo máximo de cuatro meses, a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes, transcurrido el cual sin haber sido notificada a los interesados Resolución alguna, las solicitudes podrán entenderse desestimadas a efectos de lo previsto en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, cuando fuere de aplicación lo previsto en el artículo 5 de la presente Orden sobre subsanación de errores, el plazo para resolver se suspenderá por el tiempo que este trámite requiera, en función de la recepción de la notificación y del plazo para la subsanación.

***Artículo 11.***– Obligaciones.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso con las siguientes obligaciones:

1.– Establecer de forma clara, a partir de la fecha de recepción de la Resolución de concesión, en los ejemplares de los catálogos, programas, carteles anunciadores, fotografías y demás material gráfico o sonoro que se edite con motivo de la actividad subvencionada, mención expresa del patrocinio del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Dicho material deberá ser divulgado en euskera sin perjuicio de las demás lenguas.

2.– Aceptar la subvención concedida. Los beneficiarios podrán aceptarla expresamente y por escrito. En caso contrario, si en el plazo de quince días a partir de la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención los beneficiarios no renuncian a la misma, también expresamente y por escrito, se entenderá que ésta queda aceptada.

3.– Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida, salvo que resulte de aplicación lo establecido en el apartado 6 sobre aceptación de modificaciones.

4.– Facilitar la documentación que les solicite la Dirección de Promoción de la Cultura para la realización de cuantas inspecciones considere oportunas en orden

oro egiteko eska ditzakeen agiri guztiak eman beharko dizkiote.

5.– Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari aurkeztu beharko diete, deialdi honen ondorioz jasotako dirulaguntzei dagokienez euren funtzioak betez, eskatzen dieten informazio oro.

6.– Aurkeztu den proiektuak edozein aldaketa izanez gero, idatziz jakinarazi beharko zaio Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari, gehienez hilabeteko epean, onuradunak dirulaguntza jaso duela adierazten duen ebazpena jasotzen duen egunetik hasita. Zuzendaritzak, bestalde, aldaketaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik 15 laneguneko epea izango du erantzuteko. Epe hori erantzun espresik eman gabe amaituz gero, aldaketa onartu dela ulertuko da.

***12. artikulua.***– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Agindu honen kargura ematen diren dirulaguntzak bi epetan ordainduko dira, ondoko prozeduraren arabera:

– Lehenengo ordainketa, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 75ekoa, agindu honetako 11.2 artikuluan ezarritakoaren arabera dirulaguntza onartzen denetik aurrera hilabeteko epean.

– Bigarren eta azken ordainketa, gainontzeko % 25ekoa, dirulaguntza jaso duen jardueraren gastua eta bestelakoak agindu honetako 13.1 artikuluan adierazten den eran behar bezala justifikatu ondoren, hala badagokio.

2.– Aurreko paragrafoan xedatzen denaren kaltetan izan gabe, esleipenari buruzko ebazpena jasotzean dagoeneko burutu diren jarduerei dirulaguntza osoa ordainketa bakar baten bidez eman ahal izango zaie, betiere, eskabidea egitean, eskatzen diren gainontzeko agiri guztiekin batera, dirulaguntza jasotzeko den jarduera aurkeztu eta onartutako aurrekontuaren arabera bete izanaren egiaztagiriari dagokiona ere aurkeztu bada, eta Agindu honetako 13.1 artikuluan aurreikusi bezala justifikatu ondoren.

***13. artikulua.***– Dirulaguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

1.– Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradunek, dirulaguntza jaso duten jarduerak amaitu ondorengo bi hilabeteko epean eta, edonola ere, 2009ko martxoaren 31 baino lehen, ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzte:

a) Jarduera egin ondorengo memoria, gutxienez agindu honetako 8.1 artikuluan ezartzen diren balioespen irizpideak betetzearen aipamenak barne hartzen dituena.

b) Dirulaguntza jaso duen jarduera burutzeko izandako gastu eta diru-sarrera guztien zerrenda eta balantzea. Honekin batera, aurkeztu eta onartutako aurrekontuaren araberako gastu eta diru-sarrera guzti hauei dagozkien faktura edo justifikatzeko agiriak, jatorrizko-

a garantizar la correcta ejecución de los proyectos subvencionados.

5.– Facilitar a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que les sea requerida por éstos en el ejercicio de sus funciones respecto a las subvenciones recibidas al amparo de esta Orden.

6.– Notificar por escrito a la Dirección de Promoción de la Cultura cualquier cambio respecto al proyecto inicial presentado, en el plazo máximo de un mes a partir de la recepción de la Resolución de adjudicación. La Dirección por su parte dispondrá para contestar de un plazo de 15 días hábiles a partir de la fecha de recepción de la notificación de la modificación. Transcurrido dicho plazo sin notificación expresa, la modificación se entenderá aceptada.

***Artículo 12.***– Pago de la subvención.

1.– Las subvenciones concedidas con arreglo a lo regulado en la presente Orden se abonarán en dos pagos, de acuerdo con el siguiente procedimiento:

– Un primer pago por el 75% de la subvención concedida, que se abonará en el plazo de un mes a partir de la aceptación de la misma, según los términos señalados en el artículo 11.2 de la presente Orden.

– Un segundo y último pago por el 25% restante, que se abonará, si así correspondiera, previa justificación del gasto y otros aspectos de la actividad subvencionada, en los términos señalados en el artículo 13.1 de la presente Orden.

2.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, se podrá abonar la totalidad de la subvención a las actividades ya realizadas a la recepción de la notificación de la Resolución de adjudicación, mediante un único pago, siempre y cuando en la solicitud se aporte, junto con la restante documentación exigida, la correspondiente a la acreditación de la ejecución de la actividad de conformidad con el presupuesto presentado y aceptado, y después de la justificación en los términos previstos en el artículo 13.1 de la presente Orden.

***Artículo 13.***– Justificación y liquidación de la subvención.

1.– Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán presentar dentro de los dos meses siguientes al de finalización de las actividades subvencionadas, y en todo caso con anterioridad al 31 de marzo de 2009, la documentación siguiente:

a) Memoria de ejecución de la actividad, que incluya referencias al menos al cumplimiento de los criterios de valoración establecidos en el artículo 8.1 de esta Orden.

b) Relación y Balance de los gastos e ingresos habidos en el desarrollo de la actividad subvencionada. Se acompañará de las facturas o justificantes, originales o fotocopias de los mismos compulsadas en los Servicios Territoriales de Cultura, correspondientes a la totali-

ak edo Kultura Lurralde Zerbitzuetan konpultsatutako hauen fotokopiak. Dirulaguntzaren kopuruak jardueraren gastu-aurrekontuaren % 30 gainditzen ez duen kasuetan, ez da beharrezkoa izango dirulaguntza horren kopuru osora arteko gastuen agiriak baino gehiago justifikatzea. Kasu hauetan, jardueraren gastuen eta dirusarreren balantzearen zinpeko aitorpena ere gaineratuko da beste guztiarekin batera, eta onuradunak jardueraren guztizko gastuaren justifikazioa Kultura Sailaren eskura jartzeko konpromisoa hartzen du, honek hala eskatzen badio.

c) Xede bera izan duten eta eskabide hau aurkeztean emanak ote zeuden ala ez ezagutzen ez zen bestelako laguntzen zerrenda.

d) Jarduera dela-eta argitaratutako katalogo, programa, iragarpen-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinuzkoaren hizkuntz bertsio desberdinen ale bana, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesaren aipamena espresuki adierazita agertzen delarik.

e) Entitateak zerga-zorrak kitatuta dituela egiaztatzen duen dagokion Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, ordainketaren bat 2009ko ekitaldian egingo bada.

